



IKASTETXEAREN URTEKO MEMORIA

2017-18 ikasturtea

DOLORES IBARRURI BHI

014010

ABANTO-ZIERBENA





AURKIBIDEA

	Orrialdea
0.- SARRERA	1
1.- HELBURU OROKORREN EBALUAZIOA	1
1.1.- IUPean proposatutako helburuen lorpen maila eta garapena	1
1.2.- Ikasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa	2
2.- IRAKASKUNTZA JARDUEREN PROGRAMAREN EBALUAZIOA	3
2.1.- Departamentuek egindako irakaskuntza jardueraren ebaluazioa	3
2.2.- Zentroaren antolamenduaren ebaluazioa	4
2.3.- Berriazko programen ebaluazioa	4
2.3.1.- Irakaskuntzarako ekintzak	4
2.3.2.- Berrikuntza eta Hobekuntza proiektuak	5
2.3.3.- Beste batzuk	6
3.- BIZIKIDETZA URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA	6
4.- OSAGARRIKO ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETARAKO PROGRAMAREN EBALUAZIOA	6
5.- IRAKASLEENTZAKO FORMAZIO PLANAREN EBALUAZIOA	6
6.- URTEKO KUDEAKETA EGITAMUAREN EBALUAZIOA	7
7.- ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	7

0.- SARRERA

DOLORES IBARRURI BHIko 2017-2018 ikasturteko Ikastetxearen Urteko Memoriak (IUM) epe motzerako balio duen kudeaketa-baliabidea da, ikastetxeak oro har nola funtzionatzen duen eta ikasleen ikaskuntza-prozesua eta emaitzak zertan diren aztertzen duena. Ikastetxearen jardura nagusiak laburbiltzen ditu eta hobekuntzarako helburuak eta esku hartzeko irizpideak azpimarratzen ditu.

IUM hau datuetako zuzeneko bilketa sistematikotik aurrera egin da, irakasleei zuzendutako lau galdeketa espezifikoren bitartez: zentroaren helburu orokorren ebaluazioa, zentroaren funtzionamendu orokorreko alderdien ebaluazioa, zentroko zerbitzuen eta programen ebaluazioa eta, azkenik, organo desberdinei edo institutuaren taldeei zuzendutako ebaluazio orokorra. Parte-hartzea oso altua izan da.

Baditugu, aldiz, ikasturtean zehar egiten diren ekarpenak (kexak, iradokizunak, etab.), institutuaren funtzionatzeko dinamika arruntari dagozkionak.

IUMek Ikastetxearen Urteko Planean (IUP) lehenetsitako jardueri buruzko datuak ere jasotzen ditu eta ikasturtean zehar eginiko hainbat iritzi, ohar eta balorazio kontutan izan dira honako egoera hauez baliatuz: ikasleak ebaluatzeko saioak, gobernu- eta pedagogia-organok berrikusteko bilerak, familiekin egindako bilerak, etab.

1.- HELBURU OROKORREN EBALUAZIOA

1.1.- IUPean proposatutako helburuen lorpen maila eta garapena

IUPean bildutako lehentasunezko ildoak bultzatzen jarraitu ditugu, bereziki hauexek nabarmenduz:

Kalitatezko hezkuntzako garapen laneko jarraipena (metodologia eraginkorrak, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen ebaluazioa, etab.), ikasleen parte-hartzearen bultzada, bizikidetzaren hobekuntzan inplikazioa, bizikidetzaren oinarria den elkarrekiko errespetua indartuz, eta familiak euren seme-alaben hezkuntzan parte hartzea bultzatzea.

Proposatutako helburuen betekizun maila hauxe izan da:

- Programazio didaktikoak eguneratzeko neurri zehatzak hartu dira, gaitasunen garapenei begira, Hitzez hitzik gabeko eta komunikazio digitaleko gaitasunari lotutako helburu bat txertatuz baita unitate didaktiko baten abiapuntua den "arazo egoerak" kualitatibo zein kuantitatiboki hobetuz.
- IKTen erabilera ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan, baita barneko harremanetarako neurri zehatzak abian jarri dira:

Eskola 2.0. ordenadoreen erabilera geletan igotzearen, Ubuntu sistema eragile desberdina erabiltzeko aholkua eman da, emaitza onak lortu direla. Irakasleek, Alfresco inguruko formazioa egin ostean, eguneroko lanean erabilgarriak diren baliabideak ezagutu dituzte. Zuzendaritzak irakasleriari egindako deialdiak eta bestelako informazioak "Zabalkunde Zerrenda" baten bidez egiten hasi dira irakasleriaren asebetetzez.

Irakasle guztiontzako posta korporatiboa sortu da.

- Zentroaren bizitzaren arlo guztietan ikasleen parte hartzea mantentzen dela onartu behar da: Delegatuen bilerak ere egokiz funtzionatu dira, baita jai egunak prestatzeko ekimenak, Bizikidetza eta Hezkidetza ekimenetan parte hartzeko partaidetza nabaria izan da. Hori bai, beste eremuetan partaidetza eskasa igarri dugu: OGG-n ikasleen presentzia eskasa, adibidez.
- Plan eta proiektu desberdinen berrikuste zein berritzea egin da: Erasmus + Proiektuaren hiru ikasturtetarako diseinua burutu da, Ikastetxeko Bitartekaritza Plana eta Aniztasunari trataera Plana ere eguneratu dira
- Hizkuntzen Trataera Bateratua eremuan departamentuen arteko koordinazioan erabaki zehatzak hartu dira DBH 1 mailako hizkuntzetako asigaturen programazioetan isla izan dutenak.
- Hizkuntza Plana garatzeko batzordean beste ikastetxeetako planen azterketa sakona egin ondoren gurea osatzeko eta aberasteko ekarpenak egin ditu.

Diagnostiko-ebaluaziotik ondorioztatzen diren hobekuntza-akzioei buruz:

- Kanpoko ebaluazioen prestatze antolatua egitea, probarekiko motibazioa sortuz, eta proba horien eskakizunen aurreko trebetasuna handiagotuz.
- Irakatsi-ikasi prozesuan gaitasunetan oinarritutako egoeren erabilpena zabaltzea.
- Ikasleek ikaskuntza prozesuan parte hartze aktiboagoa bultzatzea proiektuen bitartez eta institutuaren antolaketaren bitartez.
- Irakasgai guztietan hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lantzea, batez ere, ahozko eta idatzizko adierazpena
- Irakurmena garatzea ikasleen ulermen ahalmenari lotutako testu egokituak erabiliz.

Hurrengo alderdi positiboak, gainera, aipatzen dira:

- Ikastetxeko elkarbizitza giro egokia orokorrean. DBH 1. 2., eta 3. mailan lasaitasuna hautematen da saio aldatetetan, baita patioetan ere.
- Departamentuetako lana. Irakasleen puntualtasuna, erantzukizun eta profesionaltasuna.
- Institutuaren estamentuen arteko koordinazioa maila.
- Ikastetxean ekimen berriak agertzea (Erasmus +, Martxoaren 8aren ingurukoak-“ Egun guztiak dira Martxoak 8”, HAUSPOA martxan jartzeko ekimenak)
- IKTak ikasgelan hartutako bultzada.
- Ekintza osagarriak kopuru garrantzitsuan antolatzen dira eta oso interesgarriak eta aberasgarriak dira ikasleen garapenerako. Gehiengoak ebaluatuak izan dira dagozkien prozedurarekin. Ikaskuntza prozesuaren alderdi praktikorako ezin bestekoak dira.
- CA taldearen funtzionamendu emankorra.
- Hizkuntza Normalkuntzarako Plana.
- Patioen elkarbizitzan “Patioak Animatzeko Proiektuak” duen eragin positiboa.

- AZL/PAS-eko langileen lana eta laguntzeko jarrera.
- IKT arduradunaren lan eraginkorra.
- Zuzendaritzako eta koordinazioko lan koherente eta jarraitua ikusten da.
- IKT eta Dislexiaren inguruko irakasleentzako formazioa eta Bullying-aren inguruko formazioan erabilitako talde dinamikak.

Beste hobetzeko alderdi batzuk ere aipatzen dira:

- PIRE programetan eta absentismo egoeren aurrean familia batzuen inplikazio eskasa.
- Metodologia berrien presentzia gutxi, ikasleei ematen diogun balio eranskina hobetzeko gaitasunen garapenari garrantzi gehiago eman behar diogu.
- Bizikidetzaren planean irakaslerian inplikazio hobegarria.
- Ekintza osagarri batzuen aurrean irakasle batzuen jarrera ezkorra.
- 3 ebaluazioan ekintza osagarri gehiegi egiten dira.
- Ikasle laguntzaileak hautatzeko irizpide falta.
- Pertsona bakarreko karguek klaseetako errealitatearekin harreman estua ez izatea.
- Irakasleentzako formazioak: benetako beharrezanez ez diete erantzunik eman. Une ezegokian planteatu da eta martxan jartzeko desadostasuna ere igarri da irakaslerian.
- Irakasleentzako Formazio plan zehaztua aldeztu aurretik eman ez izatea.
- Batxilergoko ordutegi berria.
- Elkarbizitza hobetzea: ikasleen behar eta eskubideen praktikari dagokionez.

1.2.- Ikasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa

Ikasleek ikasitakoaren ebaluazioa euren emaitza akademikoetan zuzeneko isla du. Departamentu bakoitzak emaitza horien konparaziozko ikerketa egiten du urtero bere urteko txostenean. Eskola emaitzak, orokorrean, ontzat hartzen dira ikasleek eta irakasleek egindako esfortzuak kontutan hartuz gero.

Taula honetan 2017-18 ikasturteko emaitza akademikoaren alderdi partzial batzuk islatzen dira: ikasleen promozioaren ingurukoak, alegia:

	% PROMOZIONATUAK	Irakasgai guztiak gainditu duten promozionatuen %	Suspentso 1 duten promozionatuen %	Suspentso 2 duten promozionatuen %	Suspentso + 2 duten promozionatuen %	% EZ PROMOZIONATUAK
DBH 1	92	68	3	9	12	8
DBH 2	78	57	12	6	3	22
DBH 3	94	78	10	6	0	6

DBH 4	98	76	15	7	0	2
BAT 1 ZIENTZIAK	96	88	8	0	0	4
BAT 1 GIZA Z	100	62	15	23	0	0
BAT 1 HUMANITAT	80	60	20	0	0	20
BAT 2 ZIENTZIAK	90	90	0	0	0	10
BAT 2 GIZA Z	100	100	0	0	0	0
BAT 2 HUMANITAT.	60	60	0	0	0	40

Dena den, hurrengoa esan daiteke:

- Emaizak, orokorrean, talde bakoitzaren tipologiaren arabekoak dira.
- Emaizak hobetzen dira ikasleen adina handitzen den heinean. Kontutan hartzekoa da DBH 2 mailan urtero igartzen den joera promozionatzen ez duten ikasleen portzentajeri begira (%22). Une sentikorra da ikasle askoren ibilbidean. Osagarri programa batean hastea edo kurtsoa errepikatzeko muga nabaria da: ACIdunak diren ikasle batzuen kasuan, HBSP barruan (PREE) DBH 2 mailan errepikatzea, hala badagokie, gomendatzen dugu. Erkidego eta Bizkaiko ikastetxe publikoen emaitzen azpian gaude 2017-18 ikasturtean.
- DBH 3 mailan promozionatzen diren eta 4 mailan titulatzeko diren ikasleen portzentaia oso altua da gure inguruarekin konparatuz. DBH 4 mailan %98ak titulu eskuratzea oso datu positiboa dela deritzogu.
- Unibertsitaterako sarbide proban izena eman dutenen %100ak gainditu du.
- Gure Batxilergoaren emaitzei dagokienez aipatzekoa da titulua lortzen dutenen portzentaia 80 baino altuagoa dela.
- Irakasgai gaindituen ehunekoak eta irakasgai bi edo gutxiago gainditu ez dituen ikasleen ehunekoak oso onak dira, orokorrean.

2.- IRAKASKUNTZA JARDUEREN PROGRAMAREN EBALUAZIOA

2.1.- Departamentuek egindako irakaskuntza jardueren ebaluazioa

Institutuko departamentu guztietan irakaskuntza-ikaskuntza jardueren ebaluazio sistematikoa egin da memoria laburtu baten ereduaren bitartez.

Laburbilduz, honako aspektu nabarmenagoak azpimarra ditzakegu:

- Kasu guztietan IKT erabilera gero eta handiagoa dela aipatzen dute eta geletan erabilera handitzeko asmoa adierazten dute.
- Departamentu gehienetan irakasteko praktikari buruzko egindako ebaluazio lan bikaina nabarmendu behar da, 18-19 ikasturteko programazioetan sartzeko zehatzak, egituratuak eta gradualak diren hobetzeko proposamen garrantzitsuak aterez.

2.2.- Zentroaren antolamenduaren ebaluazioa

Institutuaren funtzionamendua ona, orokorrean, izan dela baloratzen da, honako alderdi hauek nabarmenduz:

- 2018-2022 bitarteko Zuzendaritza Proiektua izateak egonkortasuna eta norabidea ematen dio ikastetxeari.
- HAUSPOA Proiektua aurkezteko prozesu aberatsa eta elkarlanaren emaitza onen adierazlea izan da: Zuzendaritza eta Departamendu didaktikoen arteko elkarlana proposamenak egiteko, irakasleen inplikazio handia tailerrak diseinatzeko orduan baita OGGko kide zein AMPA kideen inplikazio maila altua ere.
- Zuzendaritza Taldeak egindako antolaketa eta gestio lana eraginkorra.
- Zentroko organo desberdinen funtzio banaketa ondo dago zehaztuta eta erantsitako funtzioak betetzen dituzte.
- Irakasleen ordutegiak orekatuak eta bakoitzaren egoera kontutan hartzekoak izateko esfortzu garrantzitsua egiten da. Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren (AJA) irizpideak jarraituz eginak dira.
- Tutoretza lanaren garrantzia gelako eguneroko egoerei erantzuna emateko. Tutoretza Plana guztion inplikazioaz eramaten da aurrera.
- Ekintza osagarriak aberasgarriak eta egokiak izan dira, irakaskuntzan laguntzen dute eta kanpoko egoera zentrora hurbiltzen dute.
- Proiektuen barruan eginiko ekintzak.
- Laguntzak eta errefortzuak beharrezkoak dira eta arazoak dituzten ikasleei laguntza ematen diete. Pedagogia Terapeutikako (PT) irakasleen lana eta Hezkuntza bereziko espezialistaren lana positiboa da oso.
- Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak beharrezkoa den lana egiten du.
- Programazio didaktikoak eguneratzeko formazio saio berariazkoak positiboki baloratuak izan dira.
- Administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren lan eraginkorra. Langile hauen arteko lan giro ona, talde lanen banaketa egokia eta erantzukizuna.
- Departamentuko Buruen Batzordeak ondo funtzionatu du, bilera bakar batean departamendu buru guztiak izatea ere positiboki baloratua izan da. Bilerak alde aurretik ondo prestatuak dira eta ondo antolatuta daude, puntualtasunez eta lanerako prestasunez egiten dira, ikastetxeari dagozkion gaiak lantzen dira eta jorratutako gaiak buruz ezaguera gaineratzen du, baina hobetzeko alderdi desberdinak aipatzen dira:
 - Saio bakoitzean eztabaidatzeko gai kopurua mugatzea eta denbora banaketa egokia bultzatzea: Departamenduetara eraman beharreko zereginak burutzeko denbora gehiago eman behar da.
 - Alderdi pedagogikoak (metodologia, didaktika, etab.) eztabaidatzeko eta erabakitzeke denbora gehiago eman behar zaio.

Hobetu daitezkeen alderdiak nabarmentzen dira:

- HAUSPOA Proiektua dela, ikastetxeko ordutegi berriak ekarritako ondorioak, bereziki batxilergoan, aztertu beharko dira 2018-19 ikasturtean zehar, Guraso, ikasle eta irakasle batzuen eskaerari adituz.
- Irakas-esparruko ekimenak (HBPS/PREE.) urtez, urte mugatuagoak direla. Errefortzu ordu gehiago behar ditugu.

- PEG (Prestakuntza ekimen Globala) barruan burututako formazioen eraginkortasuna eta geletako aplikazio maila hobegarriak direla.
- Irakasle batzuk ikasleen hutsegiteak eta kalifikazioak aplikazioan sartzeko epeak ez dituztela betetzen.
- AZL langileentzako ekipamendua zaharkitua (fotokopiagailua, aulkiak, ordenadoreak)
- AZL langileek berariazko formaziorako dituzten zailtasunak.
- Administrazio eta zerbitzu langileen euskararen erabilera.
- Ikastetxeko zerbitzuak (Jantokia, garraioa) ikasle guztiei era orokor eta ofizialtasunez eskaini ahal izatea.
- Ikastetxeko Proiektu eta Eskolaz kanpoko ekintzen gehiegikeria.

2.3.- Berariazko programen ebaluazioa

2.3.1.- Irakaskuntzarako ekintzak

Balorazio oso positiboa da orokorrean.

Orientazio eta Tutoretza Plana (OTP): Tutoreek oso lan garrantzitsua egiten dute eraginkortasun handiarekin. Ekintzak eta programak aurrera eramateko beharrezkoa den koordinazioa nabarmentzen dute. Geletako eguneroko egoerei erantzuna emateko oso garrantzitsutzat hartzen dute. Tutoreak era egokiz hautatu behar direla azpimarratu da eta zuzendaritzaren partetik informazio gehiago jaso behar dutela haien taldeetan esku-hartze egiten dutenean. Batzutan ere, denbora falta igarri da planifikatutakoa aurrera eramateko.

Gainditu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleen tutoretzak ezarritako helburuak betetzen ditu irakasleen koordinazioari eta familiekiko informazioari dagokionez. HIBP-etan familien inplikazioa handiagotzea beharrezkotzat jotzen dugu.

Ikasturte hasieran ACI dituzten ikasleen eta osagarri programan dauden ikasleen zerrendak biltzen jarraitu behar da gainditu gabeko ikasleen behin betiko zerrendak egiteko.

Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Proiektua (HBSP) oso ondo baloratzen da. Banakako tutoretza egiteko denbora botatzen da faltan, baita curriculum egokitzapena egiteko ere. Gutxieneko edukien gaineko departamentuen akordioak ikasle-mota honetarako eman daitezela behar da.

Laguntzek eta errefortzuek emaitza positiboak ematen dituzte ikasleen garapen pertsonalengan. Irakasleen arteko koordinatutako lana oso garrantzitsutzat ematen da. Ezinbestekoak bezala balioesten dira ikasleetako kopuru adierazgarriaren eskola-arrakasta lortzeko.

AMUGE elkartearekin elkarlanean ikasle ijitoekin lan egin da egokituz jotzen den lerroan: hutsegite maila txikitzeko, norbanakoko tutoretzak eta gelaren barruko errefortzuak erabiliz, familiak inplikatur eta komunikazioa indartzeko harremanak ezarriz.

GEKEAT-ko ikasleentzako Enplegurako Heziketa Jarduera Programa arrakastaz garatu egin da, ondo antolatutako ekintzekin eta proposatutako helburuekiko ekintza egokiekin.

Curriculum Anitza Programa (CA)

Irakasle inplikatur oso balorazio positiboa egin dute. Familiekin harremanak arrakasta lortzen lagundu du. Ikasleen motibazioa ere nabarmena izan da. Familien gogobetetze maila oso altua izan da.

2.3.2.- Berrikuntza eta Hobekuntza proiektuak

Oso interesgarritzat hartzen dira hezkuntza komunitate osoarentzat eta, orokorrean, ondo garatuta daude.

Normalkuntza: Ikasturte osoan zehar irrati-gela erabili da jolastorduan, ikasleriaren motibazioari esker. Zailtasun handiena irakasleriaren partaidetza baxua izan da.

Hezkidetzak: programatutako planifikazioa bete egin da. Ondoko alderdiak nabarmentzen dira bereziki:

- Ikasle laguntzaileek oso protagonismo garrantzitsua eta positiboa izan dute, batez ere talde zehatzetan. Departamendu batzuen inplikazioa aipatzekoa da.
- Emakunde-rako sare proiektuan sartzeari positibotzat jotzen da, esparru eta pertsona desberdinek parte hartu dutelako.
- Egun berezien alboan (A25, M8, etab.) egiten diren ekintzak mantentzea beharrezkoa ikusten da, eta erakundeekin egun horiek ongi antolatzearen beharra ikusten da. "Egun guztiak dira martxoaren 8a" leloa oso egokia deritzogu.
- Beldur Barik programarako antolatutako laburmetriak.
- Egindako ekintzen difusioa garrantzitsutzat hartzen da (WEB orrialdea, kartelak, etab.), egin baino lehenago eta egin eta gero.

Elkarbizitza: Ikasle Laguntzaileen inplikazioa programatutako jardueretan nabarmentzen du, batez ere egun berezietan. Kotorrion eta ikastetxean egindako formazioa positiboki baloratua izan da. Denborarik eza nabarmentzen da bitartekaritza lanak aurrera eramateko.

Bakeola eta Amekadi-rekin egingo den formazioa ere antolatu da. Formazioa aproposa lortzea zailtasun bezala ikusten dute arduradunek.

HAUSPOA proiektuan programaren atal garrantzitsua jorratzea planteatzen da. Bitartekaritza taldea aurrera eramateko denbora gehiago sartzeko beharra ere azpimarratu behar da.

Osasuna: Planifikaturik zegoena aurrera eraman da. jarduerak oso zehaztuta daude, ondo baloratzen dira eta jarraitu behar dute. Agenda21-proiektuarekiko koordinazioa handitzea eta egiten diren saioetako bat berritzea helburu hartzen du. Alkoholari buruzko formazioa egin baino lehenago DBH 4 eta GEKEAT-eko ikaslegoarekin sentsibilizazioa egitea beharrezkoa da.

Biko Arloak emandako formazioa mantendu behar da eta tabakoaren kontsumoaren inguruko jardura DBH 1. mailan soilik lan egitea proposatzen da.

Patioak animatzeko ekintzetaz mintzatzeko GEKEAT-eko irakaslego zein ikaslegoarekin koordinazio oneak zehaztea komenigarria da.

HAUSPOA proiektua erabiltzea proposatzen da osasunaren inguruko edukiak jorratzeko.

Agenda 21: Aurten, antolakuntzari begira ahaleginak egin badira ere, ikasleen inplikazio eskasa lortu da. Ikasleak batzeko eta ilusioa sortzeko zailtasunak igarri dira eta helburuen lorpen mailari dagokionez eskas ibili garela aitortu behar da. HAUSPOA Proiektuak emango dituen baliabideak aprobetxatu behar ditugula ondorioztatu dugu.

2.3.3.- Beste batzuk

Liburutegiaren arduradunaren balorazioa positiboa izan da. Kudeaketa egokiaren ondorioz liburuaren mailegua igo egin da. Aipatzekoak dira Udal liburutegiko arduradunarekin elkarlanean burututako jarduerak.

Expurgoa egin arren akaroen kutsadurak liburu zein apalategien egoerari eragiten die oraingoz.

Maileguen kudeaketa hobekuntza prozesuarekin jarraitzea proposatzen da, eta ikasleen eta liburutegiaren ordutegia egokituz.

AMPAkide eta Udaleko liburutegiko arduradunarekiko harremana mantentzea komenigarria da.

Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak (LAPZ) esleitutako lanak egin ditu, hauexek nabarmenduz:

- Larrialdietako simulazioa era egokian egin zen eta bere garrantziaz gero eta kontzientzia handiagoa daukagu.

Jantokiaren zerbitzuak era egokian funtzionatu egin du, guztion arteko koordinazio onez. Espazioko eta uneko baldintzek hobetu duten heziketa- eta animazio-jarduerak egin dira. Jantokiaren denboran zeharreko patorako jarduerak gauzatzea beharrezko ikusten da.

IKT alorrean aipatzekoa da ordenadore portatilak eta Moodle plataformaren erabilpen eskasa. Irakasleon formakuntzan aurrerapausoak ematea beharrezkoa da aipatutako alorretan. Heldutasun teknologikoan erdi-maila lortzeko ahaleginak egin behar ditugu.

ESKOLA 2.0 hainbat ekintza arrakastaz burutu dira: sistema eragilearen eguneratzea, WiFi aldaketak...matxurak epe laburrean konpondu dira. Beharrezkoa ikusten da informatika geletako ordenadore kopurua handitzea eta gela guztiak digitalizatzea.

3.- BIZIKIDETZA URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA

Planaren garapena oso positiboki balioesten da eta honako hau nabarmentzen da bereziki:

- Ikasle berriekiko harrera eta irakasleen inplikazioa.
- Ikasle Laguntzaileen Proiektuarekin Udalak duen inplikazio maila handia.
- Ikasle Laguntzaileek egiten duten lan erdi-ezkutua eta erlazionatutako ekintzekin erabiltzen duten denbora libre.
- Irakasle arteko gatazken ebazpenetarako ikasle laguntzaileek izan duten hartu-eman positiboa.
- Bizikidetzaren Behatokiak bere lana ondo egin du. Pertsona gehiagok ideiak ematea positiboa litzateke: bereziki ikasleentzat. Bilerak baino lehenago dokumentazioa eskuratzeak laguntza handia ematen du.
- Eskola Bitartekaritza proiektuak ikasle berrien parte hartzea eta irakasle guztien sostengua behar du

4.- OSAGARRIKO ETA ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETARAKO PROGRAMAREN EBALUAZIOA

Ikastetxeko Urteko Planaren (IUP) barruan programatuta dauden ekintza gehienak burutu dira. Ez ohiko prozeduraren bitartez onartutako ekintza oso gutxi eraman dira aurrera.

Orokorki ebaluazioa ona izan da: Gure araudiak zehaztutako bi urratsak errespetatu dira oraingoan, salbuespen batzuk izan ezik

Ezberdinak eta interesgarriak ematen dituzte baita proposatutako helburuak betetzen dituztela ere.

Elkarbizitza eta ikasketa bidaiak arrakastatsuak izan dira, aurrera eraman ditugu Bizikidetzara Arauei jarraituz. Ekintzei jarraipena egiteko prozedura aurten orokorrean bete dela azpimarratu behar da, ekintzak ebaluatzeko orria antolatzaile gehienek bete dute.

Eskolaz kanpoko jardueri eta eskola-kirolari buruz, ikasleen asetze gradua altua da eta aurreikusitako helburuak bete egin direla nabarmentzen da, jarduera guztiak euskaraz izatearena barne. IGE-koen arduradunen lan handia egin dute eta eskaintza eta partaidetza altuagoa lortzen ari da.

Entrenatzaile taldearen egonkortasuna eta ikasle zehatz batzuen jokabidea hobetzen saiatu behar da.

Hobetzeko proposamen hauek egin dira: Aurre matrikulazioan izen emateetarako aukera ematea, Boleibol Club baten sortzeko erraztasunak ematea.

5.- IRAKASLEENTZAKO FORMAZIO PLANAREN EBALUAZIOA

Aurreikusitako ekintzak burutu egin ditugu. Zuzendaritzak irakasleek ea formazio orduak behar bezala bete duten kontrolatu egin du eta lan obligazioen barruan egon direla egiaztatu egin du.

Era positibo batez baloratu dira programazio didaktikoak eguneratzeko formazio saioak. Alfresco plataformaren erabilpena bultzatzeko, eta ikastetxeko posta korporatiboaren berri emateko saioa emankorra izan arren, jarraipena eman behar zaiela deritzogu. Egindako formazioari emandako izaera aldatu behar dela deritzogu: Metodologia aldatzeko beharra ikusten da eremu honetan

Aldiz "Prestakuntza Ekimen Globala" barruan ere aipatzekoa da Berritzeguneko aholkularien jarrera baikorra. Hori dela eta, egindako formazioari ezarpen praktikoa eman zitzaion DBH ingelera saio batzuetan, eta esperientzia hori ere baloratua izan da parte hartu zuen irakaslearen aldetik. Bizikasi ekimenaren testu- inguruan ere Berdinen arteko tratatu txarrak eta bullying bezalako jokabideen aurreko trataerarako formazio saioaren balorazio positiboa egiten dugu: metodologia parte-hartzailearen aldeko apustu hark onurak ekarri ditu eta irakasleen balorazio altuagoa formazioarekiko.

Iritzi batzuen arabera, formazio saioak zehatzagoak eta eraginkorragoak izan behar dira ahalik eta atarramendu handiena ateratzeko.

6.- URTEKO KUDEAKETA EGITAMUAREN EBALUAZIOA

Institutuaren kudeaketa oso positiboki balioesten da.

7.- ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Hauexek dira aipatzen diren proposamenak:

- Irakaskuntza-ikaskuntza metodologiaren hobekuntzan lan egiten jarraitzea, gaur egungo eskakizunei doitzeko: HAUSPOA Proiektua horretarako "giltza" izan behar da.
- Ikasleen euskarazko komunikatzeko gaitasuna hobetzeko lanekin jarraitzea arlo guztietan, batez ere ahozko eta idatzizko adierazpena.
- IKTek ikasgelan duten inplantazioa erraztu eta bultzatzea.
- Institutuko pertsonen arteko bizikidetzara hobetzen jarraitzea oinarrizko baloreak indartuz.

- Proiektuen arteko koordinazioa hobetzea, geletan duten eraginkortasuna handiagoa lortzeko.
- Tutoreek garatzen duten lana indartzen jarraitzea.
- Ikasleen parte hartzea zentroaren bizitzaren arlo guztietan, batez ere DBHtik aurrera.
- Irakasleentzako formazio saioen eraginkortasuna hobetzea.
- HIBP-etan ikasleen eta familien inplikazioa handiagotzea.
- Errefortzu ordu gehiago eskatzea, baita Curriculum Aniztasuna (CA) egotea ere.
- Administrazio eta zerbitzu langileen euskararen erabilera indartzea.